



**4.-IGORREN EUSKERA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2018KO KUDEAKETA PLANA ONESTEKO PROPOSAMENA**

**EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2017**

**Lan ildoak**

**KONTZIENTZIAZIOA:** Herritarrak, oro har, eta arloan arloko eragileak euskara erabiltzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea

**PRESTIGIATZEA:** Euskararen izen ona, garrantzia eta eragina bultzatzea, erabilera-eremu guztietan euskarari balioa ematea

**LIDERGOA LANTZEA:** Hizkuntza-jarrera aktiboak bultzatzea eta herriko alor guztietan hizkuntza-erreferenteak sortzea

**Esparruak eta neurriak**

**1. FAMILIA TRANSMISIOA**

Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea

Familia barruan euskararen erabilera sustatzea

**2. EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA**

Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak

Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean (ESEPen ez da agertzen neurri moduan)

Elebitasun pasiboa helduen munduan eta gutxieneko helburutzat areagotzea eta prestigiatzea

**3. GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK**

Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea

**4. AISIA ETA KIROLA**

Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea

Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea

**5. LIBURUGINTZA**

Irakurzaletasuna bultzatzea

Marketing-a antolatzea eta merkatua zabaltzea

**6. SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA**

Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea

**ADMINISTRAZIOA****ARLO SOZIO EKONOMIKOA****KULTURGINTZA****2018ko KUDEAKETA PLANA****FAMILIA TRANSMISIOA**

NEURRIA: Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea

<b>Lan ildoak</b>	<b>Ekintza</b>	<b>Azalpena</b>
Kontzientziaketa	Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen	Eskolak gurasoei begira zehaztuta daukan plangintzarekin elkarlana. Tailerrak UEMArekin LHrako, eta HHko ipuinen irakurketa (Miren Amuriza).
Kontzientziaketa	Gurasogaien hizkuntza-ohituren aldaketarako erraztasunak ematea	Erroldatzerakoan, Emaiozu bizia liburuxka + Adur zapia + gutuna + autorako pegatina
Kontzientziaketa, Prestigiatzea	Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea	Euskarazko produktuen katalogoa Eskola agenda Irrien lagunak

NEURRIA: Familia barruan euskararen erabilera sustatzea



<i>Prestigiatzea</i>	Euskararen erabilerarako dauden sozializazio guneak baliatzea eta berriak sortzea	Euskerea Agoan
Lidergoa, kontzientziazioa	Familia bidezko transmisioa sendotu dezaketen hizkuntza-ohitura eredugarriak identifikatu eta sustatzea	Familian Berbalagun Jubilatuekin elkarlana sustatu Guraso elkartarekin elkarlana, koordinazioa

### EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA

NEURRIA: Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak

Lan ildoak	Ekintza	Azalpena
Prestigiatzea	Mintzapraktika egitasmoak zabaltzea: berbalagun, gurasolagun	Martxan dauden taldeak mantendu. Sendotu. Berbalagunekin batera diseinatu

NEURRIA: Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean (ESEPen ez da jasotzen...)

Xede talde estrategikoak identifikatu eta euskalduntzera

Finantzatzen ditugun euskara



<i>Prestigiatzea</i>	erakarri	ikastaroak:  Gurasoak  Merkatariak  Etorkinak
----------------------	----------	---

NEURRIA: Elebitasun pasiboa helduen munduan eta gutxieneko helburutzat areagotzea eta prestigiatzea

<i>Prestigiatzea</i>	Diru-laguntzak arlo estrategikoetan banatzea  Euskararen oinarrizko ezagutzaren balioa aitortzea, eta maila hori lortzeko aukerak zabaltzea  Oinarrizko euskarazko A1 eta A2 mailak egiaztatzea eta, hala dagokionean, ikasleen diru-laguntzetarako kontuan hartzea.	%100eko finantzazioa maila guztietan
----------------------	--	---

## LIBURUGINTZA

NEURRIA:Irakurzaletasuna bultzatzea

<b>Lan ildoak</b>	<b>Ekintza</b>	<b>Azalpena</b>
<i>Prestigiatzea</i>	Ume, guraso eta // Bularretik mintzora	Ekimena zehazteko



NEURRIA:Marketing-a antolatzea eta merkatua zabaltzea

Prestigiatzea	Euskaraz argitaratutako literaturaren irakurketa sustatzea	“Irakurri, Gozatu, Oparitu”, Ipuin kontalariak, galtzagorri...
---------------	--	--

### GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK

NEURRIA:Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea

Lan ildoa	Ekintza	Azalpena
Lidergoa lantzea	Hizkuntza-jarrera aktiboak bultzatzea eta institutuan hizkuntza-erreferenteak sortzea	Bertsolaritza institutuan, DBHko unitate didaktikoak eta Batxilergorako tailerrak (UEMA)
Prestigiatzea	Ahozkotasuna eta euskaraz adierazteko gaitasuna lantzea, bereziki haur eta gazteei zuzendutako egitasmoen bidez	Bertsolaritza eskolan Antzerki hizkuntza aztertuko da guraso elkarreagaz batera
Kontzientziaketa	Herrian dugun errealitate soziolinguistikoa zein den neurtzea eta jakitera ematea	



## AISIA ETA KIROLA

NEURRIA: Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea

Kontzientziatzioa	Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzako protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatzeke eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro (Kirol-ikastaroak euskaraz eman eta hizkuntzen erabilerarako protokoloa ezarri Kirol-monitoreei saioak euskaraz emateko baliabideak eskaini)	Kiroldegiko arduradunarekin eta kirol monitoreekin elkarlana, koordinazioa
-------------------	---	--

## SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

NEURRIA: Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea

Lan ildoak	Ekintza	Azalpena
Prestigiatzea	Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz.	Gaztezulo harpidetza institutuan
Kontzientziatzioa	Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea	Abenduaren 3ko ekitaldiak. Euskaraldia?

NEURRIA: Administrazioa



Lidergoa	Herritarrek administrazioekiko harremanetan euskara era naturalean erabil dezaten komunikazio ekintzak antolatzea	Herritarrak aktibatu eta udal barruko planarekin bat egin, Udal barruko planagaz batera
Prestigiatzea		
Kontzientziazioa	Hizkuntza lidergoa lantzea	Politikariak ahalmentzeko saioak. Bertan zehaztuko dira onartuta dagoen udal barruko planaren jarraibide nagusiak

## NEURRIA: Arlo sozioekonomikoa

Kontzientziazioa	Enpresekin eta enpresarien elkarteekin elkarrizketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azaltzeko, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden, etab	Errotarekin batera "lan munduan euskaraz bizitzeko 12 arrazoi"
Lidergoa	Herritarrengan eta merkataritza edo ostalariengan eragitea, herritarraren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko	Hitzarmena merkataritzan. Betetze-maila ez da erabatekoa, neurri zuzentzaileak hartu beharko dira. Euskera planeko batzarretan zehaztuko ditugu.
Kontzientziazioa	Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteen bitartez	Hitzarmena, Komunikazioa urtean 3tan bideratzen da Laguntza tekniko eskaini. Errotulu finkoak aztergai.

## NEURRIA: Aisia eta kirola



Kontzientziazioa	Aisialdi taldeekiko lankidetzaren euskararen normalizazioan diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko	Hitzarmena: sentsibilizazio saioak. Kronograma egin eta urteko saioak zehaztuko dira.
Kontzientziazioa	Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzaren euskararen normalizazioan diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko	Hitzarmena: sentsibilizazio saioak. Kronograma egin eta urteko saioak zehaztuko dira.

**NEURRIA: Kulturgintza**

Kontzientziazioa	Kultura elkarrekin elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko	Hitzarmena: sentsibilizazio saioak. Kronograma egin eta urteko saioak zehaztuko dira.
------------------	---	---

**BARRUKO PROIEKZIOA****NEURRIA: Euskararen irudi positiboa indartzea**

Lan ildoak	Ekintza	Azalpena
Kontzientziazioa	Harreman sareak sendotu eta elikatzea	INBIU

**Euskera Sustatzeko Ekintza Plana garatzeko aurrekontua: 43.000€**





## **IGORREKO UDALA**

iFK: P-4810700G  
udala@igorre.net  
Tfnoak. 946315384

Elexalde 1- 48140 Igorre (Bizkaia)  
www.igorre.net  
Faxa. 946315455

<b>FAMILIA TRANSMISIOA</b>	<b>15.170 €</b>
<b>EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA</b>	<b>11.500 €</b>
<b>LIBURUGINTZA</b>	<b>1.000 €</b>
<b>GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK (bertsolaritza institutuan)</b>	<b>4.480 €</b>
<b>BERTSOLARITZA eskolan</b>	<b>3.000 €</b>
<b>ANTZERKIA</b>	<b>900 €</b>
<b>SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>	<b>1.900 €</b>
<b>BARRUKO PROIEKZIOA (INBIU)</b>	<b>2.000€</b>
<b>EUSKARALDIA</b>	<b>2.000 €</b>
<b>MERKATARITZA</b>	<b>200 €</b>
<b>BESTELAKOAK</b>	<b>850 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>43.000 €</b>

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta, aho batez, honakoa erabaki du:

1.- Igorren Euskara Sustatzeko ekintza planaren plan estrategikoaren **2018ko** kudeaketa plana onestea.

2.- Honako hauei jakinaraziko zaie: Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuari, Udaleko Kultura, Kirola eta Euskara batzordearen presidente andereari eta hizkuntza normalizaziorako teknikariari.